

iritzia

Hau ez da bidea, jaun-andreok!

Ez da lehenengo aldia, euskararen normalizazioaren alde gaude-nok, hizkuntza-plangintza nazional baten ezinbesteko premia salatu dugula, eta zoritxarrez, badirudi ez dela hau ere azkenengoa izango. Burutapen hauek, egungo instituzioek (Jaurilaritza, Diputazio eta Udalak) euskarari buruz dararamaten kolpez-kolpezkako politikak eragin dizkigu, kanpaina eta kolpe soil horiek ere aurrera eramateko duten apiezgitara faltak are bultzatu gaituelarik.

Ez da kasualitatea, Diputazioak aurrera eraman nahi duen azken kanpaina honetan, lan minimoetarako ere, Udal askotan behintzat, AEK, EHE edo talde kulturale-tako zenbait jenderekin kontaktu behar izana.

Baina bada garaia arazo honi behar bezala hel diezagun. Badirudi laster, agian artikulua hau publikatzerako, euskararen erabilpanaren normalizatorako legea onartu egingo dela. Bala! Baina azken urteotako politika linguistikorik eza ikusirik, beldur haundia badugu guzti hori paper hutsen geratuko ote den. Goazen harira.

Hemen, lehenabizi egin behar dena hizkuntza-normalizatorako ildo orokorrak markatzea da, (hau egiten ez bada, aurrekoa alferrikakoa da), eta ondoren, ildo orokor horiek koordinatzeko bideak eta bitartekoak segurtatzea. Hizkuntzaren normalizatorako zerbitzurik ez da oraindik sortu ez Eusko Jaurilaritza, ez Nafarroako Diputazioan, ez Iparraldean.

Baina hori ez da nahiko; zerbitzu zentral horietatik aparte, herrialde mailan, eta bailarakako antolatuko diren udalen ere zerbitzu deszentralizatu batzuek behar dira. Euskarak leku guzti horietan sail berezia behar du. Kultura sailetik kanpo. Ezin daiteke euskararen arazoa, Euskadiko Orkestrarekin edo eta Udal-musika akademiarekin nahasi. Denbora alferrik galtzen ari gara, horrela ez goaz inora!

Euskarak bere medio eta bide propioak behar ditu, urjentiakio medio eta bide batzuek. Ezin ditza-kegu hizkuntza arazorik ez duten nazio eta herrialdeetako egiturak besterik gabe aplikatu.

Eta Euskarak, sail berezi horietan, beste sailek dituzten medio berberak behar ditu. Esate baterako: ia udal guztiek dute bere hirigintza-saila, udal-arkitektoa, udal-aparejadorea laguntzen dutenak eta kaleko lanak egiten dituen obratarako zerbitzua, Land-Rover eta guzti!

Bada, 2 milioitik gora euskaldundu behar baditugu eta 600.000tik gora alfabetatu, euskarrik guzti horren beharra du: herriren normalizatorako ekintza, kanpaina eta bideak pentsatuko dituen sozio-linguista (edo bere funtzioa beteko lukeena), kanpaina guzti horren desarroltoa eta aurrerapena dinamizatu, kontrolatu eta neurtuko duen arduraduna eta euskararen kalitatea, egokitasuna eta testok egin eta zainduko dituen (beharrezkoa denean itzulpen lanak eginik) filologo edo linguista. Eta guzti hau praktikara eramateko, herrian bertan zirikatzaila lana eta presio-soziala landuko duen herritar talde multzoak aparte (dinamika) honetan ere parte hartuko duena, eta AEK, EHE edo horrelako taldeen inguruan bilduko dena), Udallangile batzuek, kartelak jarri behar direnean jarriko dituztenak, edo liburu-erakusketa zaindu behar diren zainduko dutenak.

Guzti hau, horrelako egitura baten bidez egiten ez baldin bagara hasten, jaun-andreok, gureak egin du eta jo dezagun hil-kanpaina. Alfer-alferrik ditugu lege guztiak.

Oraindik hasi ere ez

Hau guzti urte hauetan, dena ez bazen ere, neurri handi batetan behintzat aurrera eraman zitezkeen, eta hasi ere ez da egin. Euskararen normalizazioaz arduratu-

tuko den pertsona bat bakarrik ere ez dago gobernuan. Gobernutik ez da kanpaina minimoa ere sortu euskararen normalizatorantz (hor daude Catalunyan Generalitatek egindakoak gremioekin, fabrikekin, Coca-Colarekin, Normaren kanpaina, Udaletxeetako kanpaina), eta mesedez, ez ezazue esan ez zaretela enteratu edo aukerarik ez duzuela izan.

Diputazioak, duen herrialdeko esparru honetan ere (Gipuzkoaz hitz egiten ari gara, besteak beste non-bait oraindik papeleoa ordenatzen ari dira), bultzatu nahi dituen kanpainak zabalatzeko apiezgitara minimo batekin ez kontatzeaz aparte, PNV eta PSOEtik gehienbat datorkion erdi kontrolarekin eta presupostu eskasarekin aurkitzen da. Zeren, zer bait egin duen (zer bait berria eta aurrera doana esan nahi dugu) ia bakarra izanik ere, bere lana euskarako batzordea erabat mugatuta ikusi behar izan du, milaka presio zirela bide, bestela nola esplika daiteke, "Nonahi eta noiznahi", kanpaina erdian, Gipuzkoako Diputazioak berak errenta kobratzeko paperak erdara hutsuz argitaratzea? Eta kontuz, zeren komisio hau LAIAREN eskutan dagoelarik, ezin deza-kegu esan zein bide hartuko duen hurrengo hauteskundeetatik aurrera. Bide bat ireki da, baina hurrengoek zabaldu ala itxi egingo al dute?

Ondorio bezala behintzat hau atera nahi genuke, edo euskararen arazoari, soluzionatzeko behar-beharrezko dituen tresna eta bideak irekitzen zaizkio edo ez gaitzen gu engaina eta ez dezagun inor engaina, gure helburua ez da euskarra salbatzea, "ghetto" batetan maila folkloriko batetan mantentzea baizik. Eta alferrikako ekin-tzetan herri-dirua erabiltzea, aurpegi zuritu nahi izateaz gain, lapurrarena egitea da.

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

Argia: Gu guztion astekaria

Euskarazko astekari bat behar-beharrezkoa da. Euskarara hutsen. Eta posible da.

Bospasei urte honen buruan, eskeptiko guztioi "Argia"k eman digun lezio haundia, hori da: euskal astekari bat posible da euskarara hutsen. Zaila da, baina posible. Ez da utopia bat. Euskararen etorkizunaz arduratzen den inork ez dauka honez gero arduragabetez-rik posibilitate horren garrantzia.

Alde honetatik, beren akats eta miseria guztien gainerik, "Argia"ren, "Herria"ren existentzia hutsa, erresistentzia, iraupena, eskeptismo eta profesia guztien kontra, esanahitsua da, eta atzintzo piska bat eskatzen digu euskararen geroaz kezkatuta gauden guztioi.

Denborak aldatu egin dira, bai. Posibilitate berriak sortu dira, entseiatu beharra dago bide berriak. Baina, behar bada, esperantza berrien euforia laburra piska bat epeldu zaigu (euskararen fedean milagrorik ez dago), bide zaharrak hain txarrak ez zirela, hobeto ikusten dugur gero.

Experiencia apur bat egin dugu jadanik euskararekin egunkarietan eta aldizkari elebidun omen dire-lakoetan. Orain artekoak, behintzat, apenas erakusten du, nik uste, bide berri horietatik askoz hobeto gabiltzanik, euskarra huts-eko prentsa zahar gaixoarekin baino. Batak eta besteak ez dute

elkar ukatzen. Egunean egunean geroz hobeto ageri da, batzuek eta besteek bestelako espazioak estal-tzen dituztela euskal munduan. Funtzio desberdinak dituzte. Eta, niri behintzat, geroz eta garbiago ageri zait euskarra hutsuko prent-saren beharra, bestelakoan aldean eta bestelako ahaleginak ukatu gabe. Egunkaririk ezin du-gunez, beraz, astekari bat gutxi-enez behar-beharrezkoa da.

Astekari hori "Argia" da. Ez, behar dugun astekari delako, dau-kaguna bera delako baino. Alegia, behar duguna egiten joateko, orain eskuetan daukaguna.

Bizi, ez bizi, kilikolo ibili da zenbait denbora, laguntza gutxi eta eraso asko, lagunak ere ez beti kontentzu. Orain zutitu eta indar-tzeko ordua da. Aldi berri bat hasi.

Denok astindu gaituen erauntsi honetan, "Argia" ere askotan kin-kili-kankala ibili da, denok ibili garen bezalaxe. Ez nuke esango beti zuzenena asmatu duenik, ezta asmatuko duenik ere. Baina, hemen ere, harria botatzea erru-gabeak bakarrik izan behar badu lizentzi, harrikada asko gabe sal-batuko dela esango nuke. "Argia"k, hori da inportanteena, ekai-tzaren erdian bere bidea egin egin du, amore eman gabe. Eta, egin ez, ikasi. Makina bat aldiz hanka sar-tuaz. Baina, jeiki eta segi, poliki-poliki "Argia"k berriro aurkitu

Jose AZURMENDI

bertso berriak

iñigok jarriak

Atxuriko trenari

Doiñua: Bizkaiko txerriarenak

Tren baten historiak hemen batu gaitu, orain kontautakoak du naiko kreditu, pentsatutako denak ez zaizkit kabitu, belarriak zabaldu ta ondo aditu, bertsoz nai nuke beintzat gauza bat argitu.

Makina ta bagoiak elkarrekin zartzen denbora ta herdoiak datorrenerako, oparia ba dute Erregetarako, erloju japonesa tren zarrarentzako, itxura gordetzeko denon gustorako.

Hotzikarak ditugu neguko lilurak leihoak ezin itxi kolkotik freskurak, dantzan trebeak dira burni estrukturak, dinbilin danbalaka gu denon piurak, berriro jungo zaizkit atzeko hazkurak.

Ehundaka pertsona elkarren ganian pakete pila goian maletak azpian, atzia zapuztuta ezin egonin, aguro jaixten gera etxera heltzian, bestela oso lasai denok ostantzian.

Orduak aipatzeke ez ditut lagako, ia konpontzen diren datorrenerako, oparia ba dute Erregetarako, erloju japonesa tren zarrarentzako, itxura gordetzeko denon gustorako.

Hitz asko bota dira lurretik airera, "hau dena aldatzeko kapazak ba gera" baina garbi ikusi da baina joera: "al duenak kotxean besteok trenera, oinez ere juteko ba dezu aukera"

Iñigo

maria josek jarriak

Presoak gose greban

Agur ta erdi berriro ere Xabier eta Joxean; luza agurra zuen lagunei aurkitzen direnei bertan, bertsoik letzeko ahalmenikan baduzue oraindik hor doaz batzuk, nik ez dadukat beste erregalirikan.

Negarrez daude nere begiak, zuei hizketan hastean; taupa ta taupa nere bihotza mugimendu azkarrean; zuenak ere hitzegino du indarra duen artean ta indar hori amaitu oi da heriotza hurbiltzean.

Nere zauria gaixtotutzen da zuen oihua entzunik, oihu hori ixilduz doa ez da gelditzen indarrak, goseak, heriotza berekin du bat egiten dutelarik, bikote honi beldurra galduz jarraitu mutilak zutik.

Hilabete ta bi egunean probatu gabe mokorik; asko moteldu zuzate baina jarraitzen dera bidez itxura denez heriotzari ez diozue beldurrik; nik belaneko eskatu diot ez jo presoen aterik.

Argalduz duzun gorpuztak janaria eskatzen du; begiak erdi hertsirik daude nai dutelarik zabaldu; pozaren argia piz zazu tristurarena itzaldü arnasa tinko dagon artean ezperantzarik ez galdü.

Orain arteko eskari guztik ezetzatu ta ukatu; azken batean, bide bakarra gose greba aukeratu, zer egotea larrintz dauden ez dute nai konturatu, zuen burrukak irabazi ta herria askatuko du.

Mari Jose